

# FORO ERREGULARRA ERATU AURREKO BILERA

## LEHENDAKARITZA – MAIATZAK 17

<b>Bileraren helburuak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Informazioa ematea plana garatzeak dakarrenaz eta haren garapenean gizarte zibilak duen zereginaz.</li> <li>2. Foro Erregularra gizarte zibileko zein pertsonak eta erakundeak eratuko duten erabakitzea, autohautaketa-prozesu baten bitartez.</li> <li>3. Foro Erregularra osatu ez arren plana zehazteko prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak eta erakundeak informatuta mantentzeko eta haien ekarpenak jasotzeko modurik onena zein den erabakitzea.</li> </ol>
<b>Iraupena</b>	Aurreikusitako iraupena: 12:30 - 14:00 // Benetako iraupena: 12:30 - 15:15

### 1. SARRERA (12:00)

Lehenik eta behin, bileran dauden **guztiei eskerrak eman zaizkie** bilerara etortzeagatik eta Euskadirako Gobernu Irekiaren Ekintza Plana garatzeko prozesuan parte hartzeko erakutsitako interesagatik.

Jakinarazi denez, 90 gonbidapen inguru egin dira (Talde Sustatzailea osatzen duten EAEko erakundeek proposatuta), EAEko hainbat pertsona eta antolakunderentzat, Ekintza Planaren garapenean parte hartzeko, eta, Irekian izena emateko (formulario baten bidez) aukera ere eman da. **30 lagunek eta antolakundek baino gehiagok adierazi dute parte hartu nahi dutela** Foro Erregularra eratzeko prozesuan eta Ekintza Planaren garapenean.

Bideo-laburpen bat erakutsi da, Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantza zer den eta horretan parte hartzeak zer dakarren azaltzeko.

Halaber, **hautagaitza sustatu duten erakundeek, denak bileran daudela, konpromiso politikoa berretsi dute**. Bi alderdi azpimarratu dira:

- Herrialde-proiektu bat da; beraz, erakundeen arteko lankidetzak beharrezko baldintza da Euskadin gobernu irekia garatzeko.
- Gizarte Zibilaren parte-hartzea, duen ikuskera eta ezagutza sartuta, giltzarria da ekintza plan bat eraikitzeko, herritarren beharrei erantzuneko diena eta baliagarri izango dena aukera berriak emango dizkiguten proiektu berriei ekiteko.

Azkenik, **aurkezpenen txanda** egin da (ikus 1. ERANSKINA-BILERAN IZANDAKOAK), guztiek parte hartzeko zer motibazio eta interes dituzten azal dezaten.

### 2. OGP: ZER DEN ETA ZER DAKARREN HOR PARTE HARTZEAK. 13:00

Aurkezpen bat egin da. Hona hemen gai garrantzitsuenak:

- **Zer da Gobernu Irekirako Aliantza (OGP) eta zer dakar programaren parte izateak?**

*OGP nazioarteko ekimen bat da, borondatezkoa. 2011n sortu zen, 8 herrialde fundatzailearen eskutik, eta helburu du gobernuak beren herritarrekin konpromisoak ezartzea, **gardentasuna sustatzeko, herritarrak ahalduzko, ustelkeriari aurre egiteko eta teknologia berriak erabiltzeko, gobernantza demokratikoa hobetzeari begira.***

Parte hartzen duten gobernuek **ekintza-planak** idazten dituzte, **urtean bitan**, eta plan **horietan konpromiso zehatzak sartzen dituzte, gobernu irekian aurrera egiteko**. Gobernu Irekirako Aliantzak **irizpide eta gomendio batzuk** zehaztu ditu, gobernuek ekintza-plan nazionaletan sartzen dituzten konpromisoak **zehazteko eta idazteko**.

- **Euskadik zergatik nahi izan zuen OGPn parte hartu?**

Nahiz eta **abiapuntu onean** gauden gardentasunari, partaidetzarako araudi aurreratuari, berrikuntza publikoko planei, eta tresnei dagokienez (plataformak, atariak, eskuliburuak, prozesuak, etab.), uste dugu **OGPren parte izateak aukera ona ematen digula gobernu irekiari bultzada handiagoa emateko**, erakundeen arteko lankidetzaren bitartez, herritarrekin batera jarduteko apustuaren bidez eta Aliantzako kide diren beste gobernu batzuekiko elkarlan-ikaskuntza baten bitartez.

### 3. EKINTZA PLAN BAT BATERA SORTZEKO PROZESUA - 13:20

OGPk berak irizpide eta estandar batzuk zehazten ditu, Ekintza Planaren baterako sorkuntza bermatzeko; horien artean, **planaren gobernantzarako** sortu behar diren taldeak eta foroak zehazten ditu. Irizpide horiei jarraituz, foro eta lantalde hauek aurreikusten dira hasteko:

- **Talde eragilea:** hautagaitza sustatu duten entitateek osatzen dute.
- **Foro erregularra:** instituzio publikoek eta gizarte zibileko erakundeek osatzen dute, parekidetasunez.
- **Foro irekia:** gun e ireki bat da (birtuala, baina aurrez aurreko lantegiak dituen), eta aukera ematen du planean parte hartu nahi duen edonork / edozein erakundek ekarpenak egiteko edo kontrastatzeko.
- **Konpromisoen araberako taldeak:** lantalde publiko-pribatuak dira, talde sustatzailearekin batera gidatuak, eta konpromisoen zabalpena gidatuko dute.

Talde / foro horietako bakoitzak **funtzio jakin bat du:**

<b>GRUPO PROMOTOR</b>	Determina el Plan de difusión y medios Establece el modelo organizativo Aprueba el Plan de Acción Consensua las prioridades y las motiva Ejecuta los compromisos Se autoevalúa Es evaluado externamente
<b>FORO REGULAR</b>	Establece su gobernanza (1 reunión /mes) Permite que la ciudadanía organice su proceso selectivo para participar Delibera y propone al comité promotor Monitorea la implementación del plan Delibera sobre la autoevaluación y propone mejoras
<b>FORO ABIERTO</b>	Relación virtual abierta constante Son personas a invitar a participar en eventos 1 vez año se les convoca para el seguimiento del plan
<b>GRUPOS POR COMPROMISO</b>	Diseño de los proyectos para ejecutar los compromisos Implementación de los proyectos Rendición de cuentas al Foro regular y Grupo Promotor

**Eratzeko premiarik handiena duen foroa Foro Erregularra da**, bera arduratuko baita Ekintza Planean jasoko diren konpromisoak garatzeaz; **hain zuzen ere horregatik egin da bilera hau**. 2. **ERANSKINEAN (Foro Erregularra) zehatzago azaltzen da** nola eratu den eta zer dakarren foru erregularrean parte hartzeak.

Ondoren, prozesuaren egutegia aurkezten da, gutxi gorabeherakoa.

PLAN DE ACCIÓN BIENAL											
2018						2019			2020		
ABRIL	MAYO	JUNIO	JULIO	AGOSTO		AGOSTO				AGOSTO	
Primeros contactos con OGP y orientaciones	Autoselección representación ciudadana en Foro Regular	Elaboración del Plan de Acción (y compromisos)			Envío Plan de acción en castellano e inglés	Implementación del Plan de acción					
Diseño del proceso y plan de trabajo	Constitución Foro Regular	Compartir diagnóstico	Operativizar compromisos y plan de acción			Evaluación anual					Evaluación anual
	Adopción de modelo de gobernanza	Compartir propuestas de compromisos y prioridades	Identificación de grupos por compromiso		Reunión trimestral de seguimiento y evaluación						
	Compartir plan de trabajo	Reunión mensual			Instrumentalización del Plan de acción y rendición de cuentas						
	Posible visita OGP										
	Generación del Foro Abierto	Rendición de cuentas/apertura a la participación virtual y presencial... al Foro Abierto									

Plana eraikitzeko erabiliko diren balioak (gardentasuna, elkarrizketarako eta baterako sorkuntzarako guneak, eta erabakiak elkarrekin hartzea eta eskuratzea) eta konpromiso batek dakartzan inplikazioak espezifikoak neurgarriak izan behar dira –gobernu irekiaren helburuekin bat egiten dutenak, eta anbizio handikoak—, inpaktua dutenak eta erronka bat lortzera bideratuta daudenak.

[Hautagaitzarako aurkeztu eta \(onartu\) den testuan](#), diagnostiko bat zirriboratu da, Foro Erregularrean kontrastatu beharko dena, eta konpromiso posible batzuk zirriborrotzen dira:

- *Open Big-Data Euskadi*, gure open data erakundearteko big data baterantz eboluzionarazteko.
- “Open Eskola”- ikaskuntzarako gune irekia, irekierarako eta herritarrak inplikatzeko gune fisikoak sustatzeko. Horiek saiakuntza-laborategi bihurtzeko beharrezan arakatzea.
- *Jardun publikoaren esparruak eta prozesuak mapatzea ustelkeria-arriskua gutxitzeko.*
- Gobernantza esperimentaleko jardunbideak beste erakunde batzuei doitzeko, herritarren parte-hartzea uztartuz eta lotuz plangintza estrategiko eta etorkizun-eraikuntza partekatuekin.

#### 4. GALDERAK 13:40

Aurkezpenaren ondoren, parte hartzeko txanda ireki da, gaiak argitzeko:

*Foro Erregularrean parte hartzea ordaindu egingo da?*

Galdetu da ea baloratu den prozesu honetan gizarte zibilak izango duen parte-hartzea ordaintzeko aukera, kontuan hartuta zer nolako dedikazioa eskatzen duen Foro Erregularrean

parte hartzeak eta prozesu hauetan zer nolako asimetria dagoen (administrazioaren izenean joaten direnek beren lan-ordutegi ordainduaren barruan egiten baitute).

Bileran daudenei jakinarazi zaie Talde Eragileak gai hori tratatu zuela eta Foru Erregularreko parte-hartzea ez ordaintzea erabaki zuela. Bileretara joateagatik joan-etorrietan sortutako gastuak eta dietak, ordea, ordainduko dira. Gizarte zibileko kideei lan espezifikoak (adibidez, abiapuntuari buruzko txostenak, egungo egoerari buruzko analisiak...) eskatzeko aukera aurreikusten da, Ekintza Planeko konpromisoak lantzeko eta hedatzeko sortzen diren taldeetan batez ere; lan horiek, noski, ordaindu egingo dira (borondatzeko parte-hartzearen eremutik kanpokoak direlako).

#### *Parte hartzeko gonbita behar bezain irekia izan da?*

Talde eragileak ahalegin handia egin du erakunde askori gonbita egiten prozesuan parte hartzeko; gainera, aukera eman da Irekian izena emateko ( formulario baten bidez), parte hartu nahi duten pertsonentzat eta erakundeentzat. Hala eta guztiz ere, Talde Eragileak aitortu du denbora gutxi izan dela Foro Erregularra antolatzeko (zeinak Ekintza Plana 2018ko abuztuaren 31rako sortu behar baitu beranduenez), eta horrek prozesu honen lehen fase hau baldintzatu duela.

Halaber, Talde Eragileak aitortu du hautagaitzaren hasierako informazioa eta parte hartzeko gonbita egin zaien erakundeen zerrenda dagoeneko eskuragarri (online) egon behar litzatekeela, fase hori gardenagoa izateko. Ahalik eta lasterren, dokumentu horiek Irekian jarriko dira; horretaz gainera, komunikazio-plan bat lantzen ari gara, eta plan horretan, gune propio bat (irisgarria, intuititiboa, interaktiboa ...) izatearen aukera baloratuko da. Gune horretan, informazioa emango da, eta, horretaz gainera, gizarte zibilarekin elkarriketa etengabea izatea bultzatuko da, gizarte zibilaren ekarpenak eta erantzunak erraztuz fase guztietan. Nabarmentzekoa da plan hau ikaskuntza-prozesu bat ere badela; ziur aski, dena ez da perfekzioz egingo, baina ahalegin handia egingo da gobernu irekiaren balioetan sakontzeko fase bakoitzean.

#### *Foro Erregularraren bileretan urrenetik parte har daiteke? Bai*

OGPren estandarretan, Foroaren bileraren batean birtualki parte hartzeko erraztasunak ematea gomendatzen da, eta hala bermatuko da prozesuan zehar. Edonola ere, batez ere hasieran, kontuan hartuta orobat dela garrantzitsua Foro Erregularrean lankidetzaren dinamika bat eta konfiantzazko harremana sortzea, garrantzitsutzat jotzen da bileretara joatea.

#### *Planak zer nolako anbizioa izango du eta nola kudeatuko da erakunde bakoitzak erritmo desberdina izatea?*

Planean erabakiko ditugun konpromisoak anbizio handikoak izan behar dira: hau da, eraldatzeko gaitasuna izan behar dute. Anbizio handikoak? Egingarriak eta errealistak, baina anbizio handikoak - horizontalak eta bertikalak.

#### *Gai orokorrak*

Nabarmentzekoa da plan guztian hizkera erraza erabiltzearen garrantzia eta prozesuari "aurpegi berriak" jartzearen beharra, eta, horretarako, estrategia batzuk diseinatuko dira, parte hartzeko aukera emateko normaletan horrelakoetan parte hartzeko deia egiten ez zaien pertsonen eta erakundeen. Azkenik, esan da erakundeen artean ekintza-plan bat lantzea aurrerabide handia dela berez eta proiektuaren indarra biderkatzen duela.



## 5. AUTOHAUTATZE PROZESUA - 14:00

---

FORO ERREGULARRA osatuko duten gizarte zibileko entitateak hautatzeko prozesuari bide emateko, EAEko administrazioetako ordezkariak bileratik atera dira. Bilerako buru Innobasque entitatea izan da, Talde Eragilean administrazio publiko bat ez den kide bakarra den aldetik.

Lehenik eta behin, bileran daudenek nabarmendu dutenez, oso denbora gutxi egon da FORO ERREGULARREAN parte hartzeak zer dakarren baloratu ahal izateko, eta zaila gertatzen da hautatze-prozesu bat egitea, interesatuta dauden pertsonak eta erakundeak (eta, beraz, FORO ERREGULARREAN egin lezaketen ekarpena) ezagutu gabe.

On irizten zaio matrizean interesatutako pertsonen sailkapenari, horrela ikus baitaiteke non dagoen gehiegi edo gutxiegi ordezkaturak, FORO ERREGULARRA osatzeko behar diren irizpideen arabera; hala ere, ez da nahikotzat jotzen formularioan idatzitakoan oinarrituta erabakitzea nork parte hartu behar duen FORO ERREGULARREAN.

Horren haritik, Innobasquek hau argitu du:

- Beharrezkoa da FORO ERREGULARARRAK gizarte zibilaren ikuskera plurala izatea, eta hain zuzen ere irizpide horiek erabili dira erakundeei gonbita egiteko. Halaber, OGPK baditu beste irizpide batzuk, kontuan hartu beharrekoak (ez bakarrik herritar adituak, erakunde txikiagoak eta handiagoak, etab.).
- Gainera, azken hautaketak parekotasun-irizpideak bete behar lituzke, eta, ahal den neurrian, lurraldetasuna ere kontuan hartu behar luke.
- FORO ERREGULARREAN parte hartzeak ez dakar ez ezer ez inor ordezkatzeko. FORO ERREGULARREAN parte hartzea aukera eta konpromiso bat da herritarren ikuskera Ekintza Planean jasota geratzeko, herritarrek planaren garapenean parte hartzeko eta plana hedatzeko prozesua eta mugarriak zehazteko.
- FORO ERREGULARRA Plana garatzeko eta hedatzeko tresna bat da, baina ez da, inondik ere, parte hartzeko eta lankidetzako ikaskuntzan aritzeko aukera bakarra. Foro irekia ez ezik, konpromisoen araberrako taldeak ere irekiko dira, gai zehatzago eta praktikoago batzuk lantzeko.

Gai horiek argituta, lehen hurbilpen bat egin da, Foro Erregularrean nork parte hartu nahi lukeen ikusteko. Pertsona batzuek baiezkota eman dute, eskua altxatuta (7k baino gehiagok; beraz, Foro Erregularrean parte hartu nahi dutenen artean nola hautatu aztertu beharra dago). Halaber, batzuek esan dute eskua ez altxatzeak ez duela esan nahi egon nahi ez dutenik, eta bi arrazoi nagusi aipatu dituzte:

- Uste dute badirela beste erakunde / pertsona batzuk lehentasuna eman behar zaienak, ikuskera aberasgarri edo beharrezkoago bat eman dezaketelako.
- Foro Erregularreko partaidetza beste erakunde batzuei delegatzea, sareen sare bat direlako berez eta planean ikuspegi bat baino gehiago sar dezaketelako zeharka.

Aukerak baloratu ondoren (zozketa, bozketa irekia, 7 erakunderen hautagaitzak bozkatzeko, etab.), baina adostasun garbirik lortu gabe, kontuan hartuta bilera asko luzatu dela eta batzuek irten egin dutela edo joan egin behar dutela, prozesu hau erabaki da, FORO ERREGULARREAN parte hartuko duten 7 pertsona / erakunde zehazteko aukera egingarriena dela iritzita:

- Behin akta bidali eta parte hartzeak zer eskatzen duen zehatzago azaldu ondoren, berretsi (edo ez) pertsona / erakunde bakoitzak Foroan parte hartzeko duen prestasuna - *autohautagaitzaren ideia, baina hausnartzeko denbora gehiago emanaz eta informa gehiago izanez (bileran daudenek aipatutako ordezkariak "lagapena" egiteko aukera).*
- Informazio horrekin (Foro Erregularraren parte izateko nahia berresten duten pertsonak / erakundeak) eta kontuan hartuta OGPK eskatzen dituen aniztasun-estandarrak, Innobasquek Foro Erregularraren osaerari buruzko proposamen tekniko eta arrazoitu bat egin, lehen fase honetan parte hartu duzuenok (pertsonak/erakundeak) berresteko.
- Proposamen bat pentsatu eta partekatu, Foro Erregularraren eta parte hartzeko gogoia erakutsi duten erakundeen arteko elkarrizketari eta informazio-hedapeni buruz. Hemen, komunitate birtual bat sortzeko aukera ematen duen plataforma bat proposatzen du OGPK.

**Prozesu hori ahalik eta azkarren egin beharko da, maiatzaren azken astean egin behar baita Foro Erregularraren bilera.** Horretarako, Innobasquek lehenbailehen bidaliko du informazioa, eta parte hartzen duten pertsonen / erakundeen eskatzen die arin erantzuteko jasotzen dituzten posta elektronikoei.

## 1. ERANSKINA - BILERAN IZAN DIRENAK

1	Antonio Campos	Helduak Adi
2	Eusebio Agote	Helduak Adi
3	Miren Fdz de Landa	Gasteizko Kontzejuak - Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea
4	Pablo Rey Mazón	Beren kabuz dator Bilbao Data Lab-en eta Wikitoki-n parte hartzen du.
5	Eneko Agirre	Osoigo
6	Patxi	GAMAKER elkarte
7	Claudia	GAMAKER elkarte
8	Maialen Olabe	EGK
9	Ramón Ibeas	Gasteizko Caritas
10	Arantza Otaolea	Bilboko Emakumeen Elkarte
11	Miren Gutierrez	Deustuko Unibertsitatea
12	Aitzol Batiz	Kultiba
13	Roberto San Salvador	Deustuko Unibertsitatea
14	Lucia Sarabia	IRSE Araba
15	Aurora	Euskadiko GGKEko koordinatzailea
16	Susana Sucunza	Euskadiko Elkarlan Zuzenbideko Elkarte
17	Ivan del Caz	Bikonsulting
18	Mikel Barturen	Sareen Sarea
19	Antxon Gallego	IBATUZ
20	Pablo Moratalla	EHLABE
21	Maria Jose Cano	FEDEAFES
22	Ana Molina	Mestiza elkarte
23	Anabella Barroso	ALDEE
24	Alberto Ortiz de Zarate	Alorza
25	Javier Bikandi	Eusko Jaurlaritza - DACIMA
26	Koldobike Uriarte	Eusko Jaurlaritza - DACIMA
27	Luis Petrikorena	Eusko Jaurlaritza – Gobernu Irekia
28	Jon Olaizola	Eusko Jaurlaritza – Gobernu Irekia
29	Nekane Zeberio	AFA
30	Joseba Muxika	GFA
31	Vale Tena	Vitoria-Gasteizko Udala
32	Blanca Guinea	Vitoria-Gasteizko Udala
33	Amaia Ibarrodo	Bilboko Udala
34	Gotzone Zalndubide	Bilboko Udala
35	Edorta Azpiazu	Donostiako Udala
36	Mikel Esnal	Donostiako Udala
37	GOTZON BERNAOLA	Innobasque
38	Goizalde Atxutegi	Innobasque
39	Nerea Martiartu	BFA
40	Jonatan Moreno	BFA
41	Mikel Gaminde	BFA



## 2. ERANSKINA - FORO ERREGULARRA ZER DEN, NOLA OSATZEN DEN ETA ZER FUNTZIO DITUEN

---

**FORO ERREGULARREAN**, instituzio publikoek eta gizarte zibileko pertsonak / erakundeek parte hartzen dute, kide-kopuru bereko ordezkariak dituzte.

**Foro Erregularra osatzen duten instituzio publikoak 8 dira:** Eusko Jaurlaritza, AFA, BFA, GFA, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala eta Eudel. Guztiak, Eudel izan ezik, Hautagaitzaren Talde Erregularraren parte dira.

**Horrek esan nahi du 8 pertsonak / erakundeek parte har dezaketela Foro Erregularrean**, Ekintza Planaren garapenean eta Planaren hedapen eta jarraipenean **herritarren ikuskera txerta dezaten**.

Innobasque, hautagaitzaren Talde Sustatzaileko kide izateagatik, Foro Erregularraren parte izatera pasatu dira (lehen aipatutako 7 instituzio publikoak bezala); beraz, **7 plaza** erabaki behar dira. **OGPren irizpideei jarraituz, prozesu hori AUTOHAUTAKETA-prozesu bat izan behar da, eta interesatuta dauden erakundeek eta pertsonak erabaki behar dute zein den formularik onena Foro Erregularra osatzeko.**

[OGP Participation and Cocreation Toolkit](#) eskuliburuaren arabera, hauek dira FORO ERREGULARRAREN funtzio nagusiak eta haren osakerarako irizpideak:

### Zer da FORO ERREGULAR bat?

Gobernu-**agenteek** eta gobernu kanpokoek osatutako foro bat da. Aldizka batzartzen dira, Ekintza Planaren diseinua eta ezarpena gainbegiratzeko eta koordinatzeko. Foro Erregularra mekanismo garrantzitsu bat da OGPren printzipioa praktikan jartzeko, hau da, gobernuak eta gizarte zibilak elkarrekin sortzea.

Foro Erregularra OGP prozesua gainbegiratzeko eratu da. Erregulartasunez biltzen da (gutxienez, lau hilean behin), aurrez aurre edo ez.

### Zergatik sortu FORO ERREGULAR bat?

Foro Erregularrak bermatuko du OGP prozesua hainbat **agenteren** partaidetzaren eta gidaritzaren onuraz baliatzen dela. OGP prozesu bat Foro Erregular baten bitartez kudeatzeak onura asko ekar ditzake; besteak beste:

- I. Ideia, sare eta iturri berrietarako sarbidea izatea.
- II. Lankidetzaren harremanak eraikitzea eta elkar ulertzeko bideak ezartzea.

### Zer zeregin du Foro Erregularrak?

Foro Erregularreko kideek elkarrekin ezarriko dituzte beren konpromisoak, parte hartzeko modua eta gobernatzeko sistema (adibidez, bileren maiztasuna, nori ezartzen duen agenda, erabakiak nola hartu, auziak nola konpondu, akten zehaztasun-maila eta nori duen erabakitzearen aginpidea). Horiek guztiak OGPren webgunean argitaratzen dira.

**Irismena eta konpromisoa:** Foro Erregularrak ez du izan behar gobernu-**agenteek** eta gobernu kanpokoek parte hartzeko bide bakarra. Foro Erregularrak jardueren irismena eta konpromisoa

ezartzen du, eta horiei agente garrantzitsuenei helarazten dizkie (herritarrak, gizarte zibila, erakundeak, gobernu sailak, legebiltzarra, hezkuntza-sistema, sektore pribatua, etab.), OGP prozesuaren aurrerabideari buruzko informazioa emateko.

**Erabakiak hartzea:** Foro Erregularrak aginpide- eta erantzukizun-maila desberdinak izan ditzake erabakiak hartzerakoan.

**Gainbegiratzea eta ikaskuntza:** OGP prozesu bat oso prozesu konplexua eta dinamikoa izan daiteke, agente parte-hartzaile ugari dituen, eta prozesu horren arrakasta agenteen ikuspuntu desberdinen bidez etorriko da. Foro Erregularrak gidatu eta gainbegiratu behar du prozesua.

**Txostenak:** Foro Erregularrak gainbegiratu behar du Ekintza Planaren txostenen aurrerabidea.

### **Nork parte hartu behar du Foro Erregularrean?**

Foro Erregularraren osaera elkarrekin erabaki dute OGP prozesuan parte hartzen duten agente guztiek. Gainera, ordezkaritza orekatua egon behar da gobernu-ordezkarien eta gobernuz kanpokoaren artean.

Foro Erregularrak goi-mailako gobernu-ordezkariek izan behar ditu, erabakitzeke ahalmena dutenak, Foroa behar hainbat ahaldunduta egon dadin.

Foro Erregularreko gobernuz kanpoko kideak prozesu zuzen eta garden baten bidez hautatzen dira. Foro Erregularreko arauak aukera eman behar diete gobernuz kanpoko agenteei beren hautatze-sistema propioa ezartzen.

Foroa sendo ezarrita egon behar da, baina malgua ere izan behar da, gobernuetan eta gizarte zibilean gertatzen diren aldaketetara egokitu ahal izateko. Aldaketak, gertatuz gero, segurtatzeko, Foroko kideek hau egin dezakete:

- Bilera eta Foroaren jardura guztiak dokumentatu.
- Lehendakariordetza bat eta ordezkioak ezarri, aldaketak gertatzen direnerako.
- Kideen artean txandakatze-politika bat ezarri, beharrezko iritziz gero.
- Kide berriei ongi etorria emateko eta sarrera errazteko materiala prestatu.
- Hainbat lotura ezarri, Ekintza Plana ezartzearekin lotutako informazioaren fluxua errazteko.
- Akordioak iristea, aldaketa politikoak gertatzen direnean elkarrizketarekin jarraitzea bermatzeko.